

# **Errepidean Douwe Kalma-rekin**

## **Jan Menno Rozendal**



**Itzulpena: Hitzurun Hizkuntz Zerbitzuak**

**bestehitzak**  
||| |

**oarewurden**  
||| |

Co-funded by the  
Creative Europe Programme  
of the European Union



## Errepidean Douwe Kalma-rekin

### Sarrera

Beste egun eguzkitsu bat zen. Eredu finkoa erabiltzen dut: arropa arina jantzi, motxila bat hartu, eta eskaileretan behera korrika egin, azkar ateratzeko. Asteotan hainbestetan bezala, Tumble Kafe-ra joan naiz, Bitola-tik hegoalderantz dagoen mendixkara. Shirok Sokak kaletik joan naiz; dendez eta jendez beteta zegoen; hiriko parketik pasatu naiz, hondatutako futbol-estadiotik gertu, FK Pelister-ek gaizki jokatzen duen estadio horretatik gertu.

Beste mendixka baten oinean, badut beste ohitura bat, kafe-makinan egiten dut etenaldia. Hamar denar eskatzen ditu, euro baten hamabost zentimo baino gehixeago, eta likido marroi eta gozogia ematen dit. Azukrerik gabe ezin da hartu, edo ez dakit nola egiten den. Hurrengo urratsak dira bidaiaren zatirik zailena: nahiz eta mendixka oso garaia ez izan, tontorreraino iristeko bidea aldapatsua da, oso. Azkenean tontorreraino iristen naizenean, banku batean esertzen naiz. Nire bankuan.

Nire sorbalda izerditsua hiriari begira dago. Ezkerretara eta eskuinetara, badaude mendiak, eta nire aurrean, haran luze bat. Han, nonbait, zuzenean joanda 10 kilometrora, Greziako muga dago. Baina, nahiz eta arreta osoa jarri, paisaiak ez dit pistarik ematen muga zehatz-mehatz non dagoen jakiteko. Guztiek 'Dena Mazedonia da' esaten didate etengabe, gizakiak asmatu duen mugaren bi aldeetan. Baina Mazedonia zer da, zehazki? Eta norena da? Ez da erraza: poesia maite dutenek esan didate Mazedonia kontzeptu likidoa dela. Nire pentsamenduak atzoko egunera itzuli dira. Nazioarteko zaintze hertsiz, erreferendum bat egin zuten herrialde honetan, erabakitzeke ea haren izenak 'Ipar Mazedoniako Errepublika' izan behar zuen 'Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia'ren orde. Jakina, azkenean dena asmatu behar da: mugak, hizkuntza bat, izen bat... Nire hausnarketak bertan behera utzi ditut, eta urrutitik, Fryslân-etik, ekarri dudun liburuxka atera dut poltsatik. Fryslân en de Wrâld (Fryslân eta Mundua) du izenburu. Egilea Douwe Kalma da.

## **Kalma fenomenoa**

1896ko apirilaren 3an, Boksum frisiar herriko Kalma jauna eta andrea pozez txoratuta zeuden lehenengo eta azken umearen jaiotzarengatik. Ume bakar horren izena Douwe izango zen. Mutilaren guraso bat oso gazterik hil zen, umeak 11 urte zituela: aitak, gaixotasun larri batek jota, heriotza aukeratu zuen, ez baitzuen beste aukerarik ikusten. Laborari batzuei esker, ama eta semea moldatu ahal izan ziren, baina Douweren etorkizuna ez zegoen nekazaritzan: ikasle ona zen, eta Sneek-eko Lizeora joan zen. Gero, teologia ikasten hasi zen. Baina pulpitan ere ez zuen etorkizunik, eta laster utzi zituen bertan behera ikasketak.

Eta Douwe gaztea lumarekin hasi zen hautsak astintzen. 1913an hasi zen artikuluak argitaratzen Sljucht en Rjucht aldizkarian; Frysk ('Ald') Selskip (gizarte frisiar 'zaharra') 1844n sortua zen. Hortik gutxira, frisiar egunkari handiengan, kritikak idazten hasi zen, Leeuwarder Courant-en. Gaztearen anbizioa ez zen hor bukatu: nazio-mailako Telegraaf-era bidaltzen zituen artikuluak, eta han plazaratu egiten zituzten. Zaleak eta ez-zaleak haren luma zorrotza aintzat hasi ziren: fenomeno berriaren miresleek eta gaitzesleek elkarrizketa sutsuak izaten zituzten.

Eta hori gertatu zen garaian, Kalmak Jongfryske Mienskip (Frisiar gazteen elkarte) sortu zuen, 1915eko azaroaren 20an, bera erdigunean zela. Baina, laster, ahalmen batzuk besteei laga behar izan zizkien. Douwe soldaduskara deitu zuten, Herbehereak neutralak izanda ere, Gerra Handiaren itzala ere sentitzen baitzen. Baina Douwe ez zen erabat desagertu: azken batean, Fryslân berriaren buruzagitzat jotzen baitzuen bere burua. Fryslân berriak periferiatik atera beharko zuen, probintzikeria atzean utzi, eta Kalmak, ikusten zuen bezala, Ipar itsasoko kulturaren erdigunean egon. Nazioarteari buruzko jarrera hartu beharko zuen, eta goi-mailako artea sortu: langa goian zegoen hasieratik.

Gazteria frisiarra bere inguruan biltzea zen Kalmaren planetako bat, frisiar borroka bultzatzeko asmoz; nazioa babesteko borroka izango zen, baina baita beraren berezitasuna garatzeko ere. Eta ez hori bakarrik: hark buruzagia izan nahi zuen.

Eta, horregatik, aurkakoei isekazko ezizenak ematen zizkioten, Fryslâneko Erregea, esaterako. Krisialdi pare bat gainditu zuen erregeak, baina, azkenean, behar baino lehenago kendu zuten.

Jongfryske Mienskip-en, laster sortu zen giro istilutsua, eta Kalma atsekabearen erdigunean egoten zen askotan. Hasieran itxia zen arte-elkartea elkarte ireki bihurtu zen, Kalmak aurkakoei mezu eztabaidagarriak igortzen zizkien, buruzagiak etengabe aldatzen zuen iritzia politikari, erlijioari, taktikei eta ideologiari buruz... hori guztia ez zen lagungarria. Kexa ohikoena zen Kalma ideologiaz eta planez arropaz baino maizago aldatzen zela, eta benetako oinarria zuen kexa horrek.

Kalma buruzagi izateko jaiotze al zen? Haren bibliografiak kontrakoa dio: idazle ona izatea eta buruzagi edo politikari ona izatea ez dira gauza bera. Haren estilo eztabaidagarriak eta, batzuetan, bereziak interesa eranstean die idazlanei, baina, buruzagia izateko, zuhurtasuna eta baretasuna behar dira. Kalma karismadunak, jarraitzaileak erakartzeko trebetasuna izan arren, uxatu ere egiten zituen. Azkenean, Fedde Schurer lagunarekin sortu zuen abentura politikoa – Christian Democratic Union– ez zen arrakastatsua izan. Kalma bere burua baztertzen hasi zen gero eta gehiago, eta Mienskip ere galdu zuen beste liskar baten ondoren. 1931an, Fryslândik alde egin zuen eta irakasle aritu zen Eindhoven-en. Bazirudien bukatuta zegoela haren parte-hartzea frisiar mugimenduan.

Baina, 1930eko hamarkadaren bukaeran, gauzak aldatu egin ziren: idazlea itzulera loriatsua izan zuen Gysbert Japickx-en gaineko tesia aurkeztu zuenean Groningen-en. Frisieraz idatzitako lehen tesia izan zen, eta Kalma doktoreari harrera beroa egin zioten berriz frisiar kulturamunduan. Baina besteen arreta eta miresmena berreskuratu bezain azkar, galdu egin zuen berriz. Bigarren Mundu Gerraren ondorio bat izan zen galera hori. Alemaniarrek, Herbehereak 1940ko maiatzean inbaditu ondoren, azkar jo zuten frisiar mugimenduaren buruzagiengana. Uste zuten erakunde berriekin besteek baino jarrera hurbilagoa izan zezaketela, Fryslângo nahiei dagokionez Herbehereetako aurreko gobernuak baino jarrera irekiago izango zutelako.

Egoera berria kudeatzeko eta ahots bakar batez hitz egiteko, Triunbiratua izeneko erakundea sortu zuten, non Ald Selskip (Elkarte Zaharra) liberalek aulki bat zuten; Kristlik Selskip-ek (Elkarte kristaua), beste bat, eta folk mugimenduko norbaitek (leungarri hori erabiltzen zuten nazionalsozialismoari deitzeko), hirugarrena. Kalmak bere burua jotzen zuen Elkarte Zaharraren ordezkari egokientzat, baina urrutiegi joan zen frisiar alderi faxista batean izena eman berri zuela esanez. Horrekin beldurtuta, Elkarte Zaharrak bere izenkidea –J.J. Kalma– proposatu zuen, eta, itxuraz, Douwek bere burua baztertu zuen berriz.

Gerran zehar, elkarlanean aritu zen okupatzaileekin, eta, herrialdea askatu ondoren, 1945ean, kritikak jaso zituen horregatik, eta argitaratzeko debekua izan zuen urte luzez. Debeku horri ez zion kasurik egin: Kalmarengan ohikoa zen bezala, uste zuen bidegabe tratatu zutela, baina ez zuen inoiz lortu frisiar mugimenduan zuen leku garrantzitsua berreskuratzea. Rottefalle herrixka frisiarrean, babesa bilatu zuen, eta, han, Shakespeareren lan osoa itzultzeari ekin zion, idazle hori estimu handitan baitzuen. Azken gauzak itzultzen ari zela, auto batek harrapatu zuen, 1953an. 57 urte bakarrik zituela zendu zen.

Johan Huizinga-k –historian zehar beharbada izan den historialari herbeheretar ospetsuenak– honela deskribatu zuen Kalma gaztea: oso talentu eta izaera handiko gaztea, aietasun arriskutsuz idazten duena. Kalmak lanean erabiltzen zituen hitz handiusteak probintziakeriatzat hartu zituen Huizingak: mistizismoa erakargarria egiten zitzaion periferia gainditzeko ematen zioten aukeragatik. Eta Kalmaren lanik ospetsuenean (Fryslân eta Mundua) ikusten da joera hori.

## **Fryslân eta Mundua**

Fenomeno bat, baita ikono bat ere, baina, aldi berean, azpikaria, amateurra, bazter-nahaslea... Termino horiek guztiak Kalmari dagozkio. Zergatik mugitu zen hainbeste norabidetan? Haren homosexualitatea (garai hartan, biztanleria orokorrak ez zuen onartzen, modu leun batean esateko) askotan aipatzen da horretaz hitz egitean. Batzuetan esaten da emakumerik maite ezin zuenez, Fryslânek bera maite zezala nahi zuela. Ideia hori herriko psikologia izan liteke, neurri batean, edo interesgarria.

Hala ere, norabide-aldaketa guztietatik, pentsamendu iraunkor bat atera daiteke: Fryslân bultzatzea eta aurreratzea, XX. mendearen hasieran basamortu batean zegoen eta. Arlo horretan, Kalma sortzailea zen, eta ez kontserbadorea: ez zuen herrialdearen inguruan hormarik eraiki nahi, Fryslân inguru handiago batean kokatu baizik. Fryslân nazioartekoago bihurtu nahi zuen, beraren nortasuna –hizkuntza, besteak beste– galdu gabe.

Belaunaldi berri baten buruzagi gisa, haren ahotsa behin bakarrik entzun zen ondo, 1916ko urtarrilaren 29an, 19 urte baino ez zituela. Egun horretan eman zuen hitzaldia –Fryslân eta Mundua– argitaratu egin zen gero, eta, horrela, iraun du. Hori izan zen nirekin Bitolara ekarri nuen hitzaldia, eguzkia Tumbe Kaferen gainean gero eta altuago dagoela irakurtzen ari naizena.

Hitzaldia Lehenengo Mundu Gerraren erdian idatzi zuen. Kalmak European egiten duen zatiketa da ezaugarriarik deigarriena. Haren iritziz, kontinentea (hain nahasia momentu horretan) lau zati dauzka: alde eslaviarra, alde latino, alde teutonikoa eta alde anglo/eskandinaviarra. Baina aferaren gakoa zera da: aurreko hamarkadetan, Herbehereak gero eta latinoago bihurtu zen, baina Fryslân Ipar itsasoko kulturaren parte izan zen beti, beraz, alde anglo/eskandinaviarrekoa. Gainera, galdutako katebegia zen Fryslân, Ibsen-en eta Björnсен-en Eskandinaviaren eta Keat-en eta Shelley-ren Ingalaterraren artekoa. Zubia izatea zen Fryslânngo patu ageria.

Ikuspuntu horrek ondorio pare bat dakar. Lehenik, lotura sortzen du beste herrialde batzuekin: nazio ingeles eta eskandinaviarrekin, noski, baita ipar Alemaniako frisiarren senideekin ere. Beraz, Kalmaren frisiar nazionalismoa nazioartekoa da aldi berean: ez zuen barrura begiratzen, kanpora baizik. Bigarrenik, Herbehereetatik (kulturaliki) deskonektatzea zekarren, eta, herrialde horrekin, lotura politikoa eta gobernukoak izana zituen Fryslânek mendeetan zehar.

Hala ere, balizko ondorio urrunena –Herbehereetatiko sezesioa gertatzea– ez zen inoiz Kalmaren diskurtsoan sartu. Fryslânek bere funtzioa zuen kultura-izaki gisa, baina, Kalmaren ustez eta Mienskip-en ustez, horren ondorio politikoak mugatuak ziren. Nahiz eta sezesioa egiteko eskubidea aldarrikapenaren atzean egon, ez zuten zuzenean aldarrikatu. Ez Kalmak, ez Jongfryske Mienskipek, ez horien ondorengoek gaur arte. Izan ere, esango nuke gaia bera gutxitan aipatu dela.

Bitolan nagoela, europar askori alde hori azaltzen saiatu naiz: frisiar mugimenduko izenik handienek ere ez dute inoiz burujabetasuna aldarrikatu. Eta hori ez da ondo ulertzen Bitolan, mota guztietako hilerriz inguratuta dagoen hiri honetan, herria eta herrialdea defendatzeko hil zen jendeaz betetako Balkanetako mendietan. Hemen identitatea ez da epaitegietan, hitzaldietan, aldizkarietan edo unibertsitateetan defendatzen: kalea edo herrialdea hartzen duzu. Eta, behar izanez gero, indarra erabiltzen duzu.

XX. mendeko Fryslânen hori ez zen inoiz gertatu: zergatik ez? Historiak garrantzi handia du aferan: frisiar mugimendua sortu zenean, herbeheretar estatu batuak mende batzuk zeramatzan indarrean. Eta estatu horrek –Fryslânekin batera– kanpoko konkistatzaileen aurka borrokatu behar izan zuen askotan. Beraz, Fryslânen eta beste Herbehere guztien batasuna –'Holanda', herriko hizkuntzan– jakitun hartutako erabakia izan zen, eta asmo zehatza zuen. Beraz, geroago, 'Holanda' garrantzitsuago bihurtu, eta Fryslângo jendeak bere kultura eta hizkuntza sustatu nahi izan zituen, baina horrek ez zuen ondorio politiko automatikorik izan.

Beste alderdi bat Shirok Sokak-eko kafetegietako elkarrizketa luzeen gaia bihurtu zen. Kontua, funtsean, zera da: herbeheretarrak, frisiarrak bezala, ez dira iraultzaileak. Ez orain, ez duela mende bat ere. Lehenengo Mundu Gerraren ondoren ere, Europa osoa aldakor zegoenean, Herbehereek lasai iraun zuten. Piter Jelles Troelstra politikari frisiarrak iraultza sozialista aldarrikatu zuen, baina, historia-liburuetan, aldarrikapen hori 'gaizki ulertze'tzat jo zuten laster: eta, edonola ere, ezer gutxi gertatu zen.

Baina horrek ez du esan nahi Kalmaren ideiek Fryslân eta Mundua lana idatzi zen garaian ez zekartenik betebeharririk: idazlea frisiera gobernu- eta eskola-hizkuntza nagusi bihurtzearen aldekoa izan zen beti, eta uste zuen nederlanderak bigarren mailako hizkuntza izan behar zuela. Beste nazioarteko proposamen bat: Kalmak uste zuen ingelesa ere ikastetxeetan irakatsi behar zutela.

Baina, alderdi askotan, Kalmak Fryslân eta Mundua lanean eman zuen ikuspuntua ez zen ezohikoa. Lehenago, XX. mendean J.J. Jong-ek sortutako Boun Jong Fryslân (Fryslân Gaztearen Batasuna) frisiar gazteria mugiarazten saiatu zen; geroago, Hof Kalmaren etsairik handiena izango zen. Eta Ipar itsasoko kulturaren ideia ere ez zen berria: Harmen Sytstrak –Ald Selskipen sortzaileak– ere aldarrikatzen zuen. Halaber, argi dago itsasoa kultura partekatu baten ardatza izatearen ideia ez zela berria.

Frisiar mugimenduari indar berria ematea izan zen Kalmaren lorpen berezia; garai horretan, gutxiengoak ordezkatzeko zituzten talde askok oihartzuna lortu zuten Europan zehar. Esaterako, Flandrian, Britainian eta Galesen: XIX. mendea (luzea) nazionalismoaren mendea izan zen neurrian, aldi horren bukaeran, gutxiengoen hizkuntzak eta hizkuntza txikiak beren lekuak eskatzen hasi ziren. Balkanetako kasua berezia da; han, mundu-botere bat azkar desegin zen, eta talde askok beren espazio fisikoa markatu nahi zuten. Eta Fryslânen baino askoz indar gehiagoz.



## ***Ilinden eta mazedoniarrek bere burua aintzat hartzea***

Momentuz, Kalma motxilan sartu dut eta Tumble Kafetik behera noa. Jugoslaviako garaiko bi ehiza-hegazkin atzean utzi ditut, eta erakin handi bat ikusi dut gero. XIX. mendeko hasiera arte, otomandarrek erabiltzen zuten eskola militarra da. Kemal Atatürk-ek ere urte pare bat eman zuen hemen; Bitolako museoan, hari buruzko erakusketa iraunkorra dago. Turista turkiarrek badakite eraikina aurkitzen.

“Europako gizon eria” desagiten ari den mundu-inperio baten deskribapen ospetsu eta iradokitzaileenetako bat da. Otomandar inperioak ez zuen bere burua eguneratu, zor itzelak zituen eta bere boterea eta eragina desagertu egin ziren XIX. mendean zehar.

Inperioaren mendebaldeko mugan, Balkanetan, talde asko hasi ziren beren ikuspuntuak azalarazten. Nazionalismoaren mendea izan zen han ere: Serbiak, Bulgariak eta Greziak, besteak beste, autonomia (handiagoa) nahi zuten, eta sultanak amore eman behar izan zuen. Eta zer gertatu zen mazedoniarrekin?

Sarrerara itzuliko gara: mazedoniarrek existitzen al dira? Non hasten da beren lurraldea, non bukatzen da, nor bizi da hor, eta zer iragan partekatzen dute? Mazedoniar mugimendua, identitate mazedoniarren gainean hausnartzen zuena, XIX. mendearen bukaera arte ez zen sortu: zergatik? Izan ere, 1893an sortu zen Barruko Erakunde Iraultzaile Mazedoniarra (BEIM) Salonikan (gaur egungo Tesalonikan). Mazedoniar guztientzako erakundea zen, baina nazioarteko ikuspuntu batekin.

Azken puntu horri dagokionez, mazedoniarrek konturatzen ziren beren borrokak arrakasta izango zuela nazioarteko babesa lortuz gero, eta bestela, ez. Eta, horregatik, arreta lortzen saiatu ziren beren ekintza guztiekin; esaterako, Helen Stone misiolari amerikarra bahitu zuten 1901ean. Garai hartan, zenbait atentatu gauzatu zituzten, Tesalonikan, adibidez, Guadalquivir bidaiari-ontzi frantziarrean. Gaur egun ere, 'txalupariak' heroiak dira Mazedonian, eta eskultura garrantzitsua dute Skopjen.

1903ko udaberrian, odol asko isuri zen. Maiatzaren 4an, Gotse Delchev iraultzaile ezaguna hil zuten. Horren ondorioz, istilu asko izan ziren herrialdean zehar, eta sei aldiz saiatu ziren benetako iraultzak gauzatzen. Ez zuten lortu. Eta, ondorengo Ilinden-eko iraultzak ere ez zuen arrakastarik izan. Baina, itxura guztien aurka, berehalako helburua ez zen hori. BEIMk beste helburu bat zuen: europar botereek Turkiaren aurka zituzten sentimenduak astintzea, eta botere horiek Balkanetan esku hartzea. Modu ziniko batean esanda: espero zuten otomandarren errepresaliak oso odoltsuak izatea eta, horrela, 'Europa' ezin izango zen geldirik egon, ezer egin gabe.

Baina iraultzaileek ez zuten zorte handirik izan. Hasteko, Mazedonia ez zegoen prest iraultza bat egiteko, ez indar militarri zegokionez, ez antolamenduari zegokionez. Bigarrenik, iraultzaile guztiek ez zuten helburu bera: borrokalari-talde batek Mazedoniako burujabetasuna nahi zuen (separatistak), eta beste batek Mazedonia Bulgarian ikusten zuen (hizkuntza bera zuten). BEIMko borrokalari asko Bulgariatik etorriak ziren, edo, behintzat, heziketa han jasoak zuten. Hirugarren arazoa taktikoa izan zen: garai zehatz hartan, 1900. urtearen inguruan, europar botereek ez zuten esku hartu nahi Balkanetan. Zenbait arrazoirengatik, Gizon eria ahul nahi zuten, baina bizirik.

Iraultzaile asko horretaz guztiaz konturatzen ziren eta onartu egiten zuten: eragin handiko pertsona asko –Delchev, Sandanski eta Karev, esaterako– ekintza zalapartatsu edo oldarkorren aurka agertu ziren. Edozein moduz, horien ahotsak metxa pizteko garaia zela uste zutenen ahotsek ito zituzten.

1903ko abuztuaren 2an, Ilinden santuaren egunean, hasi zen iraultza. Krushevo herrian hasi zen, komunikazio txarra zuen mendialdeko eskualde batean. Mazedoniarrek hamar egunez saiatu ziren iraultza egiten, 'Krushevoko errupublika'ko hamar egunez; horren aurretik ez zen inoiz aldarrikatu horrelako errepublika bat Balkanetan. Hamar egun horiek igaro ondoren, otomandarrek iritsi ziren, ordena berrezartzeko, eta espero ziren metodo krudelak erabili zituzten. Europarrek ez zioten erantzunik eman sarraskiari.

Beraz, iraultzak porrot egin zuen, baina geroago garrantzi handia izango zuen identitate mazedoniarren eraikuntzan. Iraultzaileek ez zieten kristauei bakarrik dei egin, baita eta islamiarrei ere. Liburuxka batean (horren zati bat bakarrik iritsi zaigu), bertako islamiarrei argi esan zitzaien iraultza beren eskubideen aldekoa ere bazela, nahiz eta, ziurrenik, otomandar fedekideekin kidetasun gehiago izan. Borroka ez zetzan sentimendu erlijiosoetan, mazedoniar guztiek komunean zuten etsai baten aurka batzean baizik. Zerga astunak jartzen zituen, eta antolamendu feudala ezartzen zuen hark. Gehiegi al da hori guztia frisiarren Herbehereetako lurjabe absenteen aurkako haserrearekin lotzea?

Itzul gaitezen Ilindenera eta ondoren gertatutakora. Urte batzuk geroago, Rila-n egindako kongresu batean, separatisten alde egin zuen unionisten eta separatisten arteko borroka: Mazedonia autonomia izango zen BEIMen helburua. 1991 arte ez zen helburua lortuko.

### **Autonomia-eskubidea: hizkuntza eta identitatea**

Kalma motxilan dagoela oraindik, Bitolako parkean ibili naiz; borroka eta garai ezberdinetako bertako heroi zenduen estatuek begiratzen didate. Inguruan, gerra asko ezagutu dituzte: Lehenengo Mundu Gerran, Balkanetako frontea hiritik gertu zegoen. Eta, hori baino lehen, beste gerra asko gertatu ziren: lehenik, guztiak –serbiarrak, bulgariarrak eta greziarrak– otomandarren aurka; gero, denen artekoak. Eta Mazedonia saria izaten zen.

Hiru taldeek herrialdea berena zela esaten zuten arrazoi historiko, linguistiko edo etnikoengatik. Greziarrak hegoaldetik; bulgariarrak ekialdetik; serbiarrak iparraldetik. Infiltratzeak, eliza-zismak, informazio-kanpainak, borroka armatua edo limurtzea erabiliz, hirurek lurraldea eta haren biztanleak eskuratzen saiatu ziren. Hirurek europar botere baten laguntza bilatu eta lortu zuten. Azkenean, mazedoniar lurraldea hiru herrialdeen artean banatu zen 1913an.

Wilson AEBko lehendakaria herrien autonomia-eskubidea aldarrikatzen ari zela 1918an (Kalmaren Frisiar Gazteek ere interes handiz entzun zuten hitzaldi hori), mazedoniarrek ez zuten lurralderik, ezta (onartutako) hizkuntzarik ere. Greziarrek etxean ere mazedonieraz hitz egitea debekatu zuten. Fryslânen egoera ez zen inoiz hain larria izan herbeheretarren aginpidean.

Bigarren Mundu Gerran, beste dimentsio bat sortu zen, batez ere serbiarrei zegokienez. Serbiarrek Mazedoniako eskualde hau lehenengo ere zokoratu zuten, beraz, hasieran, bertakoek askatzailetzat hartu zituzten faxista bulgariarrak: ez al ziren ia familiakoak, ez al zuten ia hizkuntza bera erabiltzen? Baina bulgariarrak ere gobernadore txarrak ziren, eta bertakoek zapalketa pairatu zuten berriz. Tito partisansoen buruzagiak trebetasunez erabili zuen sentimendu hori: Tempo bidali zuen ordezkari, eta hark Ardatzeko potentzien aurkako erresistentzia antolatu zuen; gerra bukatu ondoren, Mazedonia Jugoslaviako errepublika bihurtu zen.

Mazedonia, berriz, beste zerbaiten zatia zen, baina, orain, autonomia handiagoa zuen. Jugoslaviarrek –serbiarren aginpidean– nazio-identitatearen haziak erein zituzten mazedoniarren bihotzean. Norberekeriagatik egin zuten hori, noski: mazedoniarrei zerbait emanez, ez zuten askapena bilatuko ekialdetik eta burlagarrien eskutik.

Horri lotuta, hizkuntza kultura-osagai bereizgarria izan zen, eta oraindik bada. Beraz, Tito oso trebea izan zen hizkuntza mazedoniarri lehenengoz estatus ofiziala ematean bulgariarazko aldaeratzat hartzearen ordeiz. Eta momentua ere sinbolikoa izan zen: 1944ko abuztuaren 2an izan zen, Ilinden egunean. Urtebete geroago, alfabeto mazedoniarra batu zen, nahiz eta bulgariarren kritikak jaso, esanez (eta arrazoiarekin neurri batean) 'esku-hartze jugoslaviarra' zela.

Eta 'asmakizun' hori ez zen neurri bakarra: Mazedoniako 'historia nazionala', ikastetxeko curriculumean sartu zen Jugoslavian, herrialdearen iragan eslaviarra azpimarratuz. Gainera, eliza ortodoxo mazedoniarra sortu zen.

Urte horietan eta geroago, borroka militar handiak iraganeko kontuak ziren: Bulgaria Varsoviako Ituneko herrialdea zen, Grezia NATOkoa, eta Jugoslaviak bere bidea aurkitu zuen Tito lemazain zuela. Oreka berri bat sortu zen, nahiz eta oreka hori oso hauskorra izan Tito hil ondoren eta Sozialisten Batasuna eta haren menpeko herrialdeak banatu eta gero.

Horrekin batera, 'Balkanetako Gerra' antzinako garaietatik itzuli zen 1990eko hamarkadan. Jugoslaviako Mazedoniak bere burujabetasuna aldarrikatu zuen, eta ez zituen pairatu beste eskualde batzuetan –Bosnian eta Kosovon, esaterako– gertatu ziren izugarrikeriak.

Bulgariak herrialdea berehala onartzea (nahiz eta 'estatu' gisa, eta ez 'nazio' gisa) zorte handiko kontua izan zen mazedoniarrentzat; greziarrek, berriz, Mazedoniako lurraldearen zati bat eskatzeari uko egin zioten. Baina izena...

### **Ipar Mazedonia, Fryslân, Europa eta mundua**

Eskaileretatik gora noa eta nire apartamendura itzuli naiz. Kalma mahai gainean utzi dut eta telebista piztu dut: albisteak, noski. Argi geratu da mazedoniarren gehiengo handiak baiezkoa eman duela erreferendumean. Aldi berean, argi geratu da oso gutxik eman dutela botoa: azken boladan ezagutu ditudan gazteak ere etxean geratu dira. Dagoen moduan, proposamena iraingarria da, eta, batez ere: nolako garrantzia du? Ezkortasuna sentimendu hedatua da; politikagintzak jendea oztopatu baino ez du egiten, eta promes huts gehiegi entzun dituzte.

Baina bi legebiltzarrek adosten badute, Mazedoniako Jugoslaviar Errepublika Ohia Ipar Mazedoniako Errepublika bihurtuko da. Niri irtenbide dotorea iruditzen zait, baina badakit odola hotzegi dudala afera honetan. Other Words-entzat, blog bat idazten dut erreferendumaren gainean, eta 'Izen batean zer dago?' izenburua eman diot. Kalmak hitz berak frasierara itzuli izanak irribarre eragiten dit.

Hain borrokatua den herrialde honen azken kapitulua izango al da? Ez dirudi. Nahiz eta hego, eki eta iparraldeko mugak sendo samarrak egin, mendebaldeko Albania erakargarria da Mazedonian dauden kosovoar eta albaniarrentzat. Batez ere herrialdeko ipar-mendebaldean, non islamdar asko bizi diren, eta bigarren mailako herritarrak sentitzen diren. Aldi berean, gehiengo kristauak susmopean ditu: herrialdeko bosgarren zutabe bat izan daitezke? Tentsio hori Bitolan ere sentitzen da, eta bi taldeen arteko istilu bortitzak sortu ziren 2001ean. Duela egun batzuk bertako poeta batek esandako hitzak eta egindako keinuak gogoan ditut; hatzak klaskatu zituen, eta triste esan zuen: 'Berriz gerta daiteke, erraz.'

Etorkizuna hobe izan dadin, gehienek mendebaldera begiratzen dute, non, urteetan zehar, jendea lasai, aberats and aske bizi izan den. Europa bat non hizkuntza txikiek eta gutxiengoek onarpen ofiziala duten, nahiz eta hizkuntza frisiarraren onarpena Kneppelfreed-en –'astamakila-ostiralean'– eskuratu behar izan zen 1951an. Baina nazionalismo frisiarra horren ondoren ere ez zen asko hedatu: Alderdi Frisiar Nazionalak ere ez du Fryslânko burujabetasuna bilatzen Herbehereetako beste probintzietatik bananduz.

Ipar itsasoko beste kulturekiko benetako lotura bat ez da inoiz gauzatu, kasualitatezko elkarlan batzuetan izan ezik. Kalmak berak beste bide batzuk hartu zituen adinean aurrera egin ahala: Alemaniarekiko erdeinua bertan behera utzi zuen, neurri handi batean, Bigarren Mundu Gerraren hasieran. Horrek erakusten du Kalma oportunistak hutsa zela: bere garaiaren mezulari hark garrantzi handia izan zuen frisiar mugimenduaren arrakastan, baina bere ideien koherentzia-faltak eta antolamendurako talentu-faltak leku are garrantzitsuagoa izatea oztopatu zioten, batez ere 1916an espero zenaren aldean, urte hartan Fryslân eta Mundua lanaren aldarrikapenak Fryslânko kultura-bizitza astindu zuenean.

Batek daki, beharbada, Fryslân eta Mazedonia koalizio berekoak izango dira hemendik gutxira: dena ondo ateraz gero, Ipar Mazedonia EBko kidea izango da urte batzuk barru. Bi eskualdeen arteko aldeak agerian daude, noski: periferian Fryslân, eta nazioarteko bideetan Mazedonia.

Fryslânek askatasunez eta lasaitasunez garatzeko aukera izan du joan diren mendeetan, eta Mazedonia besteen menpe zegoen erabat. Fryslân homogenea, Mazedonia pluralaren aldean. Fryslân Herbehereetako zati bat da, eta Mazedonia estatu bat, zenbait gutxiengorekin...

Azkenik: Kalmak arrazoi bazuen, hain ezberdinak al dira herri eslaviarren eta Ipar itsasoko kulturen arimak? Edo kontzeptu horiek ere aldakorrak al dira?